

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 714/2020 Erabakia, abenduaren 29koa. Onespena ematea AP-1 autobideko erabiltzaileek VIASAr 2021ean ordaindu beharreko bidesariaren zenbatekoari, euro/km-tan adierazitako moneta magnitudetan

Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 12ko 207/2011 Erabakiaren bidez, onetsi egin zen "AP-1 autobidearen (Gasteiz-Eibar) zerbitzuaren araudia, Arabako Lurralde Historikotik igarotzen den tarterako"; Diputatuen Kontseiluaren urriaren 28ko 840/2004 Erabakia garatzeko. Azken erabaki horrek onetsi egin zuen "Arabako Foru Aldundiaren eta Arabako Bideak SAren arteko hitzarmena, AP-1 autobidea (Gasteiz-Eibar) eraiki, zaindu, mantendu, ustiatu eta finantzatzeko, Arabako Lurralde Historikotik igarotzen den tartean".

Araudiaren laugarren tituluan bidesariei eta tarifei aplikatu beharreko araubidea arautzen da. Gainera, bidesari motak eta haien kuantifikazioa arautzen dituzten arauak aipatzen dira.

Zehazki, II. kapituluko 80. artikuluan honako hau dio:

"Herrilan eta Garraio Saileko foru diputatuak proposatuta eta erakunde kudeatzaileak txostena egin ondoren, Diputatuen Kontseiluari dagokio bidesariaren zenbatekoa finkatzea, aldatzea eta eguneratzea. Bidesaria urtero finkatuko da, irizpide hauek kontuan izanik: ibilitako distantzia, zerbitzuaren izaera eta iraupena, azpiegituraren narriadura, merkatuaren egoera eta merkaturatzeko kostua, balego.

Era berean, bidesari horren zenbatekoa erabiltzaileak azpiegituraren finantzazioan egiten duen ekarpenaren zenbatekoaren arabera aldatu ahalko da. Nolanahi ere, urte natural bakoitzaren hasieran, Diputatuen Kontseiluak ez badu bidesariaren urte horretarako zenbatekoa eguneratu, bidesaria automatikoki eguneratuko da, estatuko Kontsumorako Prezioen Indize Orokorrak (KPI) izan duen aldakuntzaren ehuneko 95ean (aldakuntza hori Estatistikako Institutu Nazionalak, INEk, argitaratzen du). Edozein kasutan, estatuko KPlak jasaten duen aldakuntzaren ehuneko 95 hori urtero bidesariak eguneratzeko gutxieneko gehikuntza izango da.

KPlaren aldakuntzagatiko eguneratzea, egitekotan, eguneratutako bidesariak urte bakoitzeko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatzea ahalbidetuko duen urte arteko aldia hartuz egingo da".

Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 17ko 660/2020 Erabakiaren bidez, onetsi zen Arabako Lurralde Historikoko 2021eko ekitaldirako aurrekontua gauzatzeko Foru Arau Proiektua. Hamargarren xedapen gehigarrian, AP-1 autobidea erabiltzeagatiko bidesariaren zenbatekoa eguneratzea proposatzen da.

Proposatutako eguneratzea ez da indarrean jarriko aipatutako foru arauaren proiektua berretsi arte, eta hori 2021eko urtarriletik aurrera egingo da. Horregatik, beharrezkoa da bidesariaren tarifak eguneratzea 2021eko urtarrilaren 1etik 2021eko ekitaldirako Arabako Lurralde Historikoko Aurrekontuen Foru Araua indarrean sartu arteko aldirako.

Arabako Bideak SAk txostena aurkeztu du eta tarifak ehuneko 5 igotzea proposatu du, bai eta gertueneko 5 zentimoko multiplora biribiltzea ere.

Horregatik, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren,

ERABAKITZEN DUT

Onestea AP-1 autobideko erabiltzaileek Arabako Bideak SAri 2021ean ordaindu beharreko bidesariaren zenbatekoa, ibilbide bakoitzeko eurotan adierazitako moneta magnitudetan. Zenbateko hori honako hau izango da, ibilgailu motaren arabera: Tarifa horiek indarrean egongo dira Arabako Lurralde Historikoko 2021eko ekitaldirako Aurrekontuen Foru Arauaren proiektuan jasotako hamargarren xedapen gehigarrian xedatutakoa indarrean jarri arte.

Ibilbideko tarifak 2021erako, BEZa barne

		LUKU	PROBINTZIAREN MUGA
Etxabarri	Arinak	1,25 Euro	2,30 Euro
	Astunak I	2,15 Euro	3,95 Euro
	Astunak II	2,50 Euro	4,60 Euro
Luku	Arinak		1,25 Euro
	Arinak I		2,15 Euro
	Astunak II		2,55 Euro

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urtarrilaren 4a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatua

MARÍA BLANCA DE LA PEÑA BERNAL